

## ARABAKO MENDIALDEKO OSASUN ZONA

### BERNEDOKO KONTSULTATEGIA

ER-2022/2004 zenbakiaren bidez AENORrek ziurtaturiko Kalitateko Sistema duena

#### ORDUTEGIA

Astehenetik ostiralera arte: 8etatik 15etara  
Larunbatetan eta Igandeetan: Kontsulta Kanpezun  
9etatik 15etara

#### TELEFONOAK

INFORMAZIOA/AURRETIKO ZITA: **945.41.53.45**  
BERNEDOKO KONTSULTATEGIA: **945.37.80.15**  
GAIXOAREKIKO ATENTZIOA: **945.00.79.19**  
ATENTZIO URGENTEA: **945.24.44.44 edo 112**

Arabako Mendialdeko Osasun Zonan Kanpezu, Bernedo eta Maeztuko kontsultategiak daude. Bertatik osasun-laguntza ematen zaio aipatutako Udalen zonari, Arana Bailarari, Lagrani, Obekuriri eta Bajauriri. Kontsultategi hauek honako profesionalak osatzen dute: Medikuntza Orokorra, Erizaintza, Administratiboak (Kanpezu) eta Pediatria (Kanpezu).

Kontsultategi hauetan honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkizue:

- Patologia akutu eta kronikoen osasun-laguntza.
- Oinarrizko miaketak eta analisi-ateratzeak.
- Beste zentroetako espezialistekin kontsultak edo probak egiteko eskaerak eta zitazioak. Baita administrazio-tramiteak egin eta osasun zerbitzuen inguruko informazio orokorra ere.
- Prebentzio jarduerak: txertoak, eskola-osasuna, ondo dagoen haurren azterketa.
- Jarduera bereziak: kirurgia txikia, erlaxazio taldea, delu egoeretan laguntza, erditze prestakuntza.

#### ZURE MEDIKUA NOLA BISITATU

Zure medikua bisitatzeko, hitzordua eskatu behar duzu. Hau aurretiko zitaren telefono zenbakiaren bitartez(8etatik 20etara) edo kontsultategietara deituz(8etatik 15etara)egin behar duzu.

Batzuetan, behar izanez gero, medikuak edo erizainak berak proposatuko dizu hurrengo bisita egiteko eguna. Ezin izan baduzu hitzordurik lortu, eta uste baduzu zure egoeratik ezin duzula itxaron, deitu dagokizun kontsultategira edo bertara joan.

#### ZURE ERIZAINA NOLA BISITATU

Edozein arrazoiagatik( injekzioak jartzeko, sendaketak, probak, odol eta gernu analisiak, errezetak, informazioa eta osasun aholkuak,...) erizaintzako profesionalarekin kontsulta nahi izanez gero, hitzordua eskatu, medikuarentzat bezala.

Erizaintzako profesionalak beste jarduera batzuk egiten dituzte (gaixotasun kronikoen kontrola, ospitale-alta eman ondoko zainketa, txertoak...).Horretarako, profesional hauekin, zuzenean, bere kontsultategian kontsultatu behar duzu. Beraiek emango dizkizute behar dituzun hitzorduak.

#### ETXEKO ASISTENTZIA

Osasun laguntza behar baduzu eta ezin baduzu zentrorra joan, zure kontsultategiarekin telefono bitartez edo aurretiko zitaren telefonoaren bitartez harremanetan jarri.

#### HAURRENTZAKO LAGUNTZA BEHAR BADUZU

Haur gaixoak hasierako laguntza behar badu, dagokion kontsultategiko medikuak emango dio. Horretarako, heldu batek bezala, hitzordua eskatu behar du. Medikiak berak erabakiko du, haurrak behar badu, haurra pediatrian espezializatutako kontsulta batera joan behar duen ala ez. Kanpezuko kontsultategian, hilean behin pediatra batek kontsulta egiten du, eta haurren aldizkako azterketak eta mediku orokorrak bidalitako kasu bereziak eramaten ditu. Kontsultategi honetan hitzordua eskatzeko, deitu esandako aurretiko ziten telefonora.

#### ANALISIAK NON EGIN

Zure medikuak edo espezialistak analisi batzuk egitea eskatzen badizu, zure kontsultategian egin odol-ateratzea edo gernu-biltzea.

Horretarako, kontsultategira deituz, hitzordua eskatu behar duzu. Esandako egunean, baraurik eta analisisa egiteko eskaera-orriarekin joan behar duzu.

#### ESPEZIALISTARENGANA NOLA JOAN

Espezialistaren kontsultara joateko edo beste zentro batean probak egiteko eskaera, zure medikuak egingo du, hala behar duzula pentsatuz gero. Zuri ondo iduriz gero, hitzordua eskaera zure kontsultategitik egin daiteke.

#### LAGUNTZA LARUNBATETAN ETA IGANDETAN

Ohiko kontsultara arte itxaron ezin duten kasuentzat, Kanpezuko kontsultategian 9etatik 15etara kontsulta bat irekita egongo da. Bertan, mediku bat eta erizain bat egongo dira, etxeko larrialdi batean ez badaude (atean ohar bat jarriko dute).

#### OSASUN TXARTELA

Kontsultategira joaten zarenean, gogoratu osasun txartela eraman behar duzula. Txartela ez baduzu, aipatutako 3 kontsultategietan txartela eskatzeko tramiteak egin ditzakezu, baita datu aldaketak eta mediku aldaketa eskaerak egiteko ere. Bezeroak atenditzeko eremuan (Kanpezu) edo osasun espezialistei (Bernedo eta Maeztu) informazioa eskatu.

#### IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOAK

Gure zerbitzuei buruzko zure iritzia jakiteko interes handia dugu. Iradokizunak egiteko, kontsultategi bakoitzeko profesionalekin hitz egin edo itxarogeletan dauden postontziak erabili. Erreklamazioak, kontsultategian bertan edo Pazientea Atenditzeko Zerbitzuan( Gasteiz) aurkez ditzakezu.

#### ATENTZIO URGENTEA

Larrialdi kasuetan, osasun-laguntza eska dezakezu, eguneko 24 ordutan. Horretarako, aipatutako ordutegietan, kontsultategietara joan zaitezke edo telefono bitartez harremanetan jarri:

##### Lan-egunak 8etatik 15etara:

Bernedoko kontsultategia	945.37.80.15
Bernedoko medikuaren sakelakoa	636.48.04.35
Kanpezuko kontsultategia	945.41.53.45
Emergentzi koordinazioa	945244444 edo 112

##### Larunbatak, Jai-egunak eta Lan-egunak 15etatik aurrera:

Deitu zuzenean 945244444 edo 112 telefonora